



Mendi Lasterketen Euskal Seleksioko 7 korrikalarik parte hartuko dute igandean Espainiako Kopako bigarrean, Garganta de los Infernos lasterketan

- *Lehen hamarretan sailkatzeko aukera handiak dituzte gizonezkoetan naiz emakumezkoetan, eta podiumaren lehian ere sartuko dira*

2018ko apirilak 12. Mendi Lasterketen Euskal Seleksioko zazpi korrikalarik hartuko dute parte datorren igandean, hilak 15, Espainiako Kopako bigarren proban, Garganta de los Infernos lasterketan, Caceresko Jerten: **Iban Letamendi, Julen Martinez de Estibariz, Asier Alonso, Xabier Macias, Asier Larruzea, Aitziber Ibarbia** eta **Mayi Mujika**.

Lehen proba Malagan jokatu zutenetik Ander Iñarra falta da, artean lesio batetik osatzen ari baita. Kopa honetan debuta egingo dutenak Aitziber Ibarbia, Xabier Macias eta Asier Larruzea dira. Ibarbia Munduko Kopetan doitutako korrikalaria da, selekzioko beteranoetako bat, eta haren esperientziak asko balioko die berriei, Macias eta Larruzeari kasu.

Macias iruinekoa da, iraupen eskian Espainiako Txapelketetan hiru domina lortu ditu aurrean: distantzia luzean senior mailako urrea, eta klasikoan eta sprintean zilarrezko bana; mendiko lasterketetan iaz Camille Extreme 2. amaitu zuen Hassan Aitchaouren atzetik, eta bertikaletan nabarmendu zen; 2. Intza-Ttutturre eta Fuente de-Picos de Europako, 4. Anboto –EH Txapelketan 3.- eta UharteArakil-Beriainen,...

Larruzea Güeñeskoa da; iaz Gorbeia Suzien Europako Txapelketa 16. amaitu zuen, eta hainbat podium egin zituen: irabazle Arrigorriagan eta La Cuadrán, eta Zuzenien eta Apuko bertikaletan 3. besteak beste. Aurrean EMF Rankingeko liderra da Kalamuan eta Kolaziñon, bietan, 2. sailkatuta.

Garganta de los Infernos, Espainiako Kopako bigarrena

27 kilometro eta 1700 metroko desnibel positiboa duen lasterketa da Jerteko (Caceres) Garganta de los Infernos. Espainiako Kopak aurrean dituen bost probetatik bigarrena da. Euskal selekzioarentzat urteko helburu nagusietako bat da Kopa hori, Espainiako Txapelketa, Munduko Kopa eta Munduko Ultra Txapelketaz batera.

Malagan jokatu zen lehen proba, eta sailkapen nagusian Julen Martinez de Estibariz eta Mayi Mujika 5.ak dira. Iban Letamendi (10) eta Asier Alonso (14) ere puntu politekin itzuli ziren Andaluziatik. Jerten, berriz, lehen hamarretan ahalik eta ordezkaririk gehien sartzea da Euskal Seleksioaren helburua, eta horrez gain podiumen lehian sartzea. Gaia badago, ea zortea lagun duten.





Iñaki Uribe-Etxeberria eta Iban Letamendi eta Gaizka Barañano arduratuko dira aurtan selekzioaz, lehen biak linearako eta Gaizka Ultretarako, eta korrikalariekin batera osatu dituzte helburu horietarako blokeak.

MUNDUKO KOPA

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)
JOKIN LIZEAGA (Urniet, Zanpatuz ME)
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA

LEIRE MARTINEZ (Portugalete, Erlaitz ME)
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)
RAUL MACARRO (Bilbo)

ESPAINIAKO KOPA eta TXAPELKETA

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)
MAYI MUJIKA (Urretxu, Morkaiko ME)
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)
ANDER IÑARRA (Lezo)
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)
ASIER LARRUZEA (Güeñes, Azpigorri MK)



Mendi Lasterketen Euskal Selekzioaren 2018ko EGUTEGIA

MARTXOA

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

APIRILA

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

MAIATZA

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona

27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

EKAINA

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon

16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)

23 Munduko Kopa Olympus Marathon, Dion (Grezia)

24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

UZTAILA

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida

29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

ABUZTUA

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castellón

25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)



IRAILA

1	Espainiako Ultra Txap	Valle de Tena, Panticosa
1	Munduko Kopa	The Rut (Amerikako Estatu Batuak)
14	Munduko Ultra Txap	Ben Nevis Ultra (Eskozia)

URRIA

13	Munduko Kopa	Limone Extreme (Italia)
----	--------------	-------------------------

EMF egutegi ofiziala: Euskal Herriko Mendi Lasterketak

Euskal Mendizale Federazioko Lasterketa Batzordeak Txapelketa ofizialez batera Lasterketa Rankinga sortu du 2018 denboraldirako, orain arteko Kopa eta sailkapen konbinatua ordezkatzeko dituen.

Guztira 14 probek osatzen dute, eta jada Kalamua jaitsiera eta Kolaziño jokatu dira. **Asier Larruzea** Güeñeskoa eta **Lorena Guinaldo** eibartarra dira liderrak.

EMF TXAPELKETAK 2018

APIRILA

22	Linea	Aloñako Igoera	Oñati
----	-------	--------------------------------	-------

UZTAILA

13-15	Ultra	Ehun Milak	Beasain
-------	-------	----------------------------	---------

IRAILA

23	Bertikala	Uharte Arakil-Berriain	Uharte-Arakil
----	-----------	--	---------------

EMF RANKINGA 2018

URTARRILA

13	Linea	Kalamua Barinaga jaitsiera	Markina-Xemein
----	-------	--	----------------

MARTXOA

24	Linea	Kolaziño Mendi Eguna	Bedia
----	-------	--------------------------------------	-------

APIRILA

28	Ultra	Nafarroa Xtreme	Zubiri
----	-------	---------------------------------	--------

EKAINA

2	Ultra	EH Mendi Erronka	Leitza
2	Linea	Galdames Mendi Bira	Galdames
9	Linea	Gabez Takarraran	Eskoriatza
10	Linea	Intxixu Trail	Oiartzun
10	Linea	Lakuntza Aralar	Lakuntza
17	Linea	Amurrio Trail	Amurrio
17	Linea	T3T	Tolosa
24	Linea	Triku Trail	Etxarri-Aranatz

IRAILA

9	Linea	Axari Trail	Idiazabal
15	Bertikala	Intza Ttutturre	Intza

URRIA

6	Bertikala	Anboto KB	Atxondo
---	-----------	---------------------------	---------